

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 205. alea - 2016ko martxoa



**Tipi Tapa,
Andoni
Urkiolarekin**



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzta
Berriketan

943 191 383
berriketan@zuhatzta.com



Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com



kutxa




kutxabank



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

 No. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea . 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI
ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaik@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lesandri, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

AURKIBIDEA

05

KOLABORAZIOAK

Maite Rodriguez,
Errima Frustratuen
Kluba, J.L. Albizu eta
Lukax Dorronsoro.

10

AURREKONTUAK

2016rako
aurrekontuak onartu
ditu Udalak;
alderdien balorazioa

12

ALBISTEAK

Txirrindularien
lasterketak apirilean,
Kantauri Surf Liga,
Martxoaren 8a...

13

KRONIKA

Ekitaldi berezia egin
dute Itziarren, Auzo-
Udalaren
lehen urtemugan

14

B. GAZTEA

Sexu heziketari
buruzko saioak,
elkarriketa Urko
Azkoitiari...

Urteko batzar orokorra egin du Zuhatzak

Martxoaren 4an egin zuen Zuhatzak Euskara Elkarteak urteko batzar orokorra. Bertan, aurreikusitako gai ordenari jarraituta, 2015. urteak emandako erreporoa egin zen lehenik: egingandako ekimenen berri eman, eta iaizko gestio-balantzea azaldu zitzaizen bertaraturako bazkideei. Jarraian, 2016rako proiektuez aritu ziren: *Berriketan* herri aldizkaria, Kolore Anitz aisialdi taldearen proposamena, Mintzalaguna egitasmoa, literatur lehaketak, udako ekimenak, bertsolaritzari eskainitakoak, Euskal Jaia, Olentzero eta Mari Domingiren bisita... Eta, urtero legez, aurtengo aurrekontuak ere adostu ziren batzarrean.

Zuhatzak hemezortzi urte bete dituen honetan, etorkizunean nondik jo, zer egin eta nola definitu nahi du. Alegia, aurtun, Euskara Elkartearen Topaguneak lagunduta, herriko eus-

kaltzaleak bildu eta gaur egungo egoera aztertu nahi da, etorkizuneko helburu eta erronkak definitzeko. Nondik gatozen, non gauden, nora joan nahi dugun... aurrera begira zer bide jarraitu behar duen adostu nahi du Zuhatzak. Eta, hori lortze bidean, udazkenean gogoeta prozesu bat burutu nahi du.

Berriketan aldizkariaren apirileko alean, *zuhatzakideok* urteroko buletin berezia jasoko duzue etxean. Bertan aipatuko dituzte elkarteak, labur-labur bada ere, batzarrean hizketagai izandako kontuak. Era berean, gainontzeko herritarrek ere izango dute elkartearen asmo eta proiektuen berri.

Aurtun ere lanean gogotsu eta ilusioz jarraitzeko gogoia dugu. Hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera. Ateak zabal-zabalik dituzu!

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatzak.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatzak.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatzak
Euskara Elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saibururordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatzak Euskara Elkarteak

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbieta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatzak.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Euskal preso politikoak eta iheslariak etxera



Martxoaren 13an Usurbilen egindako agerraldi publikoan 800 bat preso eta iheslari ohi elkartu ginen. Manifestu bat adostu eta aurkeztu genuen bertan. Eta, besteak beste, hauxe diogu, ozen: beraiekin bat egiten dugula jasaten duten bortizkeria sistematikoari aurre egiteko borrokaldi eta ahalegin guztietan, baita legedi barneko baliabideak erabiltzeko erabakiak hartu eta urratsak ematean ere. Legediaz eta espetxe araudiaz baliatzeak ez du inola ere kolokan jartzen haien guztien izaera militantea, garatutako bidearen balioa eta duintasuna. Ez orain, ez lehen.

Beraiekin bat egiten dugu eta maite ditugu, geurekin behar ditugu kalean.

Itziar eta Debako preso eta iheslari potiko ohiok deia egiten dizuegu herritarroi parte har dezazuen Bilbon egingo dugun manifestaldian, apirilaren 17an, eguerdiko 12:00etan La Casillatik irtenda.

Autobusa egongo da. Izena emateko, ohiko tokietan.

Itziar eta Debako preso eta iheslari politiko ohiak



G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba



English Academy
NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAITZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



MAITE RODRIGUEZ

IRLANDAKO HAUTESKUNDEAK

Irlandako Errepublikan Dáil Éireann-erako hauteskundeak izan zituzten pasa den otsailaren 26an. Hauteskunde horiek ez dute politika internazionallean eragin handirik izango; 2016an ospatuko diren Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) hauteskundeek edo Erresuma Batuko Brexit erreferendumak bezalakorik, alegia. Hala ere, Irlandako Errepublikako hauteskundeei buruz hitz egin nahi nuke pixka bat; erabiltzen duten sistemari buruz, hain zuzen ere.

Irlandako Errepublikan *Single Transferable Vote* deritzon sufragio unibertsal sistema bat dute. Hautesle bakoitzak 10 hautagairi eman diezaike botoa (gustukoena lehenengo, gero bigarrena eta abar, baina ez dira derrigorrez hamarrek bete behar). Hala ere, norberaren 10 boto posible horietatik bakarria hartzen da kontuan prozesuaren azkenean. Irlandako sistemaren beste berezitasuna da botoak ez direla partiduka ematen, hautagaika baizik. Beraz, partidu bereko hautagai bat baino gehiago jarri daitezke norberaren papeletan botoa ematera-koan.

Hitz gutxitan eta modu erraze- an azalduta *Single Transferable Vote* edo boto transferagarri bakarraren kontaketa horrela egiten da: papeletan lehenengo lekuan emandako botoak kontaktzen dira, eta gutxien lortzen dituen kandidatua baztertzen da. Baztertutako kandidatua papeletan, bigarren izena

begiratzen da orduan, eta botoak bigarren gustukoenera pasatzen zaizkio. Eskualde batean bost kandidatu baleude, adibidez, papeletako lehenengo aukerak kontaktuta, boto gutxien jasotako kandidatua kaleratuko lukete. Honek jaso-

tako botoetan, bigarren posizioan emandako botoak beste lau kandidatuei transferituko litzaizkieke, eta gutxien dituen kaleratuko litzateke. Honen botoak ere transferituko lirateke eta papeletako hirugarren posiziora pasatu. Sistema konplikatu samarra izanda, kontaktak dezente luzatzen dira. Hautagaiek, boto gutxiko margena dagoenean batez ere, botoak berriz kontaktzea eskatzen dute. Longford-en aurten boto kontaketa sei egunez luzatu zen, hainbat aldiz errepi- katu zuten eta.

Hauteskundeetan 157 lege bil- tzarreko kide (Teachtaí Dála, edo TD) hautatu ziren Irlandako 40 eskualdetan zehar. TD horiek, laster, lehen ministroa (Taoiseach) hautatu behar dute. Partidu handienek ez dute gehiengorik lortu aurtengo hauteskundeetan; ikusteko dago, beraz, nor izango den hurrengo Taoiseach-a!

Sistema honen alde ona da edo- zein herritar nahiko erraz iritsi daitekeela gobernura. Eta alde txarra, herritar gehienek herriko arazoak edo lagunak buruan izanda ematen dutela botoa, partiduaren ideia oro- korrak ahaztuta.





Errima Frustratuen Kluba

Gaurko honetan Jon Sarasuak idatziriko bertso sorta bat dakarkizuegu. Sorta honetan, bere buruari otso islamiar deitzen dion gerrillari bati jarririko bertsoak ditugu. Jonen hitzetan, bertso inplikatu eta bihozkoiak.

OTSO ISLAMIARRA

-1-

Herri txikien negu gordina,
zure herrian gordinen.
Allahri egin zenion zina,
ez duzula men eginen.
Bakearekin maitemin baina,
lurrarekin maiteminen.
Tzetxeniako mendi gainetan,
otso bilakatu zinen.

-2-

Nortasunaren fede isila,
ume aroan edanda.
Historiaren arma hotsekin,
maitasunaren eztanda.
Fusil zahar bat lortu zenuen,
motorra salgai emanda.
Hura zen zure azken salmenta,
geroztik dena doan da.

-3-

Hogei halako dira etsaiak,
hasieratik dakizu.
Heriorako arriskuaren,
mugak erori zaizkizu.
Zure aurretik doa beldurra,
balak dira zutaz izu.
Bizitza doan eman izanak,
bizia salbatzen dizu.

-4-

Sarraskiaren gusto mikatza,
dastaturik aspaldion.
Ezintasunen zorigaiztoa,
ahaleginean zorion.
Bizi nahiaren oldartzeari,
ze gizatasun darion!
Preso errusiar gaztetxoari,
Irribarre egin zenion.

-5-

Otso islamiar beldurgarria,
otoitzean soilik dar-dar.
Ilunabarrez ortzi ertzean,
negar tantoa ortzadar.
Buruz behera begiratuta,
zeruak dagi irribar.
Zurrunmuruak handiesten du,
Allah akbar, Allah akbar.

-6-

Mendiko herri, mendiko herri,
Tzetxenia, Tzetxenia.
Zu ere laister izango zara,
isilpean ipinia.
Munduko azken bazterra baina,
Allahren begi ninia.
Iraganaren gaurko oihua,
geroari eskeinia.

Egilea: Jon Sarasua. Doinua: Herri txikien negu gordina.



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Moja esperimentua: 678 moja eta alzheimer ikerketa

Minnesotako moja komentu baten horma lodietatik Alzheimer gaitzari buruzko informazio harrigarria atera zen. Alzheimerri buruz 1986an, Ipar Amerikako Estatu Batuetan, Minnesotan, Mankato hirian, gure Andra Mariren Ahizpen komentuan hasi eta, gero, 1990ean, ordena bereko mojen beste komentuetara -678 mojak parte hartzeraino- heldu zen ikerketa baten berri zekarren informazioak. Kentucky Unibertsitateko David Snowdon doktorearen ekipoak (2002) zertu zuen ikerketa.

Zeraren bila zihoan azterketaren galdera: gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan Alzheimerren eta buruko beste gaitzen arriskua zerk handitzen zuen ikasi.

Gutxitan ohi den bezalako laborategi bihurtu zen komentua eta Ameriketako beste gizarte eremuetakoe-tatik desberdin samarra; ze, 65 urtetik gorako pertsonak, Amerikako gizarte orokorrean baino %25 gehiago ziren han, eta, ikerketa garaian, zazpi moja zeuden komentuan 100 urtetik gora zituztenak, "zazpi bikainak" izenpean. Diferentzia horiengatik, ikerketa honen ondorioek ez zuten, noski, Amerikako gizartearen egoeraren neurritzat hartzeko balio; baina, bazuen abantaila bat: nahasbideak ia erabat murrizten zituen, mojen arteko bizi moldeak nahiko homogeneoak zirelako.

Ikerketan parte hartzeko beharrezkoa zen 1917a baino lehen jaioa izatea. Moja parte-hartzaileek 75 eta 103 urte bitartean zauzkaten eta, bi urtez, azterketa fisiko eta intelektualak eragin zitzaizkien. Moja bakoitzaren aurrekari pertsonalak jaso zituzten, sendiaren ezaugarri sozio-ekonomikoak, autobiografia idatziak, erresidentziari, gizarte mailari eta lanbideari dagozkien osatuak; hauek ere gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan kokatuak. Mojak ez ziren erretzaileak eta alkoholik batere ez zuten edaten edo oso gutxi, ez ziren ama izanak, komentuetan bizi izanak ziren eta antzeko lanbideak izan zituzten (%85 irakasle izanak ziren), aitzin babesa eta mediku laguntza ere antzekoak zituztela. Eta, "zientziaren zerbitzari" zirenez, euren garunak eman zituzten (%10ek soilik ukatu zituzten), eurak jada zeruan zirenean azter zituzten.

Aurrekariaren informazio horrek guztiak, bizierak eta baldintzak, gehi



garunak eskuragarri izateak Alzheimerri buruzko diagnostiko kliniko neuropatologikoa egitea ahalbidetu zuen, eta, diagnostiko horri esker, lotu ahal izan zituzten sintomatologia eta euren demenzia klinikoaren adierazle ziren garuneko lesioak.

Ikerketaren emaitzak:

Ikerketak zera argitu zuen: **bizitza intelektual osoena** egiten zuten mojek hobeto "prestatu" zutela garuna Alzheimerren aurka, eta, berdin, **pozik, adiskidetsu, agertzen zirenek** eta, euren autobiografiatan ikus zitekeenez, bizitzaren aurrean jarrera baikorra zeukateneak. Alderantziz, azido folikoa urri eta gaixotasun koronarioa zutenek Alzheimerra harrapatzeko joera gehiago zuten.

Datu harrigarriaren artean zera zegoen: sintomak ez zegozkiela beti zuzen garuneko gaitzei. Bizitzan zehar buruko osasun ona eduki zuten moja batzuen garunetan lesio handiak zeuden. Alderantziz, demenzia sintoma argiak zeuzkaten beste moja batzuen garunek ez zuten batere akatsik. Eta harrigarriena, garunik osasuntsuenak 100 urtetik gora zituztenen artean aurkitu zituztela. Zera pentsarazten digu horrek: **burua galtzea ez dagoela, nahi eta nahi ez, zahartzaroari lotua.**

Eta, Deban, dagoeneko zahar txoak garenontzat, **TIPI-TAPA** fisi-

ko-mental-soziala da osabiderik onena:

Tipi-Tapa fisikoa: Zumardian edo mendian ibiltzea, pilates-a, yoga, martxa norvegiarra edo nordic walking-a... eta dantza aspertu arte.

Tipi-Tapa mentala: mus-a, seiko urrea, partxisa, dominoa, xakea, puzzleak, irakurketa eta gurutzegramak, kantua eta txiste kontatzea, euskara hobetzea edo ikastea, beste hizkuntzaren bat ikastea, ingelesa agian edo, zergatik ez? txino mandarina...

Tipi-Tapa soziala: etxetik irten, eta, ez etxean sartuta geratu, eguraldi txarrarengatik ez bada behintzat; gizarte-ko harremani eutsi eta ez albora utzi, jende gaztearekin ibili Gaztetxeko edo Gaztelekuko elkarkide izan beharrik gabe; ostegunetan pintxo-potea eta telebista tamainan!, gehiegi ez da ona; Arbil elkartearen ekintza kide izan eta abar.

Eguneroko eginkizunak gorputza eta burua lanean baldin badauzka, Tipi-Tapa, jardun fisiko, buruko, eta gizartekoan, buruko muien arteko loturak ugaritu eta biziberritu egiten dira, beren atrofia atzeratu edo gelditu egiten da eta bizi proiektu berri eta itxaropentsuak pizten dizkigu.

Ekin borondatezko lanari. On egiten dugunean, ondo sentitzen gara.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro

ANDONI URKIOLA

“Lan handia dugu oraindik gure herrian kirola eta jarduera fisikoa sustatzen”

Laster beteko da urtebete Tipi Tapa egitasmoa herrian abiatu zenetik. Udaleko Kirol Saila eta Gizarte Zerbitzuak, Osakidetza, Debako anbulategia, Arbil eta Nagusilan elkarteek elkarlanean sustatutako programa da. Laster udaberria eta eguraldi ona iritsiko zaizkigulakoan, herritarrak ariketa fisikoa egitera animatzeko sasoi egokia izan daiteke hau. Tipi Taparen saioak gidatzen dituen Andoni Urkiolarekin aritu gara *Berriketan*.



Zertan oinarritzen da Tipi Tapa?

Ttipi ttpa Eusko Jaurlaritzak herri desberdinetan sustatzen duen programa bat da. Funtsean, Debako herritarrak taldean ibili eta harreman sozialak lantzean datza.

Nori zuzenduta dago programa? Abian dago uneotan?

Helduei eta batez ere hirugarren adineko-
ei zuzentzen zaie. Bai, abian dago aurreko udaz geroztik, eta jarraipena eman nahi diogu ahalik eta herritar gehienekin.

Zer nolakoak dira zure klaseak?

Saioak bi atal nagusitan banatzen dira. Alde batetik, 30'-50'ko ibilketa (parte-hartzaileen gaitasun mailaren arabera) eta, bestetik, zumardiko aparatuetan mugikortasun eta indar atalaren saioa.

Metodologia berdina erabiltzen duzu beti?

Bai, jarduera horrelakoa delako, bi parte horiez osatuta. Hala ere, parte-hartzaileen maila eta ahalmenetara egokitzen gara.

Osasun zentroko medikuek aholkatuta etortzen dira batzuk. Behar izan denean, eta parte-hartzaileek baimenduta, medikuekin harremanetan jarri izan gara pertsona horri jarraipena gertuagotik egiteko.

Aire librean burutzen den jarduera da? Udaberri eta uda aldean bai. Kanpoan

edo aire librean ibiltzen gara. Luzera desberdineko lau ibilbide antolatuta dauzkagu. Zumardian hasten dira denak eta hondartzako pasealekuan, portualdean eta Lasako bidean ibiltzen gara.

Orain, negu partean, berriz, hotzetik eta euritik babesteko, udalari eskertu beharrean gaude, izan ere, kiroldegiko kantxa eta materiala erabili ditzakegulako. Honek aukera handiak ematen dizkigu indarra edo oreka bezalako gaitasunak lantzeko.

“Helduei eta batez ere hirugarren adineko- ei zuzenduta dago Tipi Tapa. Jarraipena eman nahi diogu programari, ahalik eta herritar gehienekin”

Zer onura dakartza Tipi Tapak? Zergatik animatu beharko litzateke jendea bertan aritzera?

Bi onura aipatuko nituzke nik nagusiki. Alde batetik, ibili eta gorputza mugitzearekin batera, arinago sentituko gara eta eguneroko zeregin eta egin beharreko desplazamenduetarako prestatuago izango gara.

Beste alde batetik, taldean joanez, harremanak lantzeko aukera ematen digu. Normalean hitz egiteko auke-

rarik izaten ez dugun jendearekin elkartzeko parada izaten da.

Eta zer zailtasun izan ditzake parte-hartzaileentzat?

Jardueraren aldetik inongo zailtasunik ez dago, bakoitzaren gaitasunetara moldatzen dugulako bai ibilketa edo bestelako ariketak.

Pertsona batzuek ondoan joateko laguntza behar izaten dute, eta horiei begira Nagusilaneko borondatezko laguntzaileak beti prest izaten dira.

Zer egin behar da egitasmoan parte hartzeko?

Oso erraza da. Astelehen eta asteazkenean 11:00etan kiroldegian agertu eta listo. Bertan neroni edo nire lankide den Aritz Olagoi izaten gara.

Jarduera Fisikoan eta Kirolean lizentziatua zara, Andoni. Nolatan amaitu duzu Tipi Tapako monitore izaten?

Orain Oñatiko Zuazola Larraña Lanbide Hezkuntza institutuan nabil. Bertan “Natur ingurunean gorputz eta kirol gidaritza” erdi mailako zikloan irakaslea naiz. Eta aukera dudanean hurbiltzen naiz Debako ttipi ttpara. Zergatik honetan? Kirolean edozein aritu daitekeelako eta adin mugarik ez duela iruditzen zaidalako. Adineko jendea ere mugitzen ikustea eta zeinen ondo egiten dien ikusteak ezerk baino gehiago betetzen nauelako.

Betidanik ibili zara kirol munduan **murgilduta?**

Bai, berezkoa dut, *jaja!* Ezin naiz geldirik egon! Mugitzeko beharra izaten dut. Aita izan nuen eredu eta berak sortu zidan kirolerako arra eta zaletasuna. Amak beti esan izan digu, neri eta anaiei, ipurterre batzuk izan gabela.

Ezagutzen ez zaituztenentzat, hitz gutxitan, zein da **Andoni Urkiola?**

Donostian jaio nintzen duela 43 urte, eta orain dela 11 urte Debara ezkondu nintzen. Irakurtzea, musika entzutea eta edozein urtarotan Debako natur inguruko txoko berriak ezagutzera gustatzen zait.

Kirola zer duzu, **afizio eta ofizio?**

Halaxe da, bai, afizio eta lanbidea dut. Afizioa dut kirolarekin gozatu egiten dudalako, lagunekin egoteko aukera ematen didalako eta pozik aldarre onean sentiarazten naudelako.

Ofizio gisara, alde batetik irakaslea naiz hezkuntzan eta bestetik "EKIN kirola eta bizitza aktiboa"-ko (ekinkirola.com) ongizate eta osasun arduradun naiz. Bertan, BihotzEKIN programa sortu nuen. Bihotzeko gaixotasun kronikoak (infartua edo bularreko angina, hipertentsioa, diabetesa, minbizi desberdinak, gehiegizko pisua, "epoc" arnasketa arazoak birrikako gaixotasunagatik) dituzten pertsonen kirola eta jardueren fisiko egokitu-

rekin beren gaixotasuna bideratzen laguntzen diet. Aurrerapen handiak izaten dituzte.

Tipi Tapan ez ezik, **Nordic Walking-en ere zuk gidatzen dituzu saioak...**

Bai, eta zeinen gustura gainera! Harrera ona izaten ari dela uste dut. Izan ere, kirol berria, ezezaguna da, oso gutxi ezagutzen dena baina bere bidea egiten ari dena. Dakartzan onurengatik, etorkizun hurbilean zeresana emango duela irudi-

aurretik goazela. Hala ere, oraindik oso urruti gabiltza Europako beste zenbait herrialderekin alderatuz gero.

Begira, datu esanguratsu bat emango dizut! Euskadiko helduen %30ek bakarrik egiten du osasun-egoera ona ziurtatzeko nahikoa jardueren fisiko. Eta gainontzeko %70a ez da iristen MOE-k (Munduko Osasun Erakundea) gomendatzen dituen gutxiengoetara. Jarduera sedentarioetan (eserita, ordenagailu aurrean lanean, telebista ikusten eta abar) luze egoten gara, eta hori ez da batere ona, gehiago mugitu behar gara. Harreman zuzena dago jokabide sedentarioen eta hilkortasunaren artean.

Horrek esan nahi du lan handia dugula oraindik gure herrian kirola eta jardueren fisikoak sustatzen. Bultzada handiago eman ezean, gorputzeko minak eta gaixotasun kronikoak ugarituz joango direla bistan da.



Ander Salegi

tzen zait. Arrakasta du kanpoan aire libreko jardueren delako, erraza eta taldean joaten garelako. Denak, gazte, heldu, neska eta mutil gonbidatuta zaudete!

Zelan ikusten duzu **kirolaren mundua edo egoera inguru hauetan? "Osasuntsu" gabiltza beste herri batzuekin alderatuta, adibidez?**

Egia da, bai, Espainia aldeko beste lurralde batzuekin alderatuta zertxobait

Beste zerbait gehitu **nahiko zenuke, Andoni?**

Kirola eta Bizitza Aktiboa adin guztietako pertsonen bizi ohituretan txertatzea eta kirolaren inguruko ezagutza eta praktika handitzen laguntzea dut helburu. Horixe da nire pasioa, mundu guztiarekin partekatu nahi dudana, nire ezagutza eta ikasketak nirekin bidaia honetan etorri nahi dutenen eskura jarritz.

Eskerrik asko eta berriro nahi duzuen arte!



Ander Salegi

2016rako aurrekontuak onartu ditu Debako Udalak

Martxoaren 2an egindako ez ohiko plenoan onartu zituen Debako Udaltzako 2016rako behin-behineko aurrekontuak, bai udaletxeak eta baita Auzo Udala, eta musika eskola zein arte eskola patronatuak ere. 7.086.276 euroko aurrekontua izango du aurten, eta aurrekontu bateratua 7.428.780 eurokoa izango da. Aldeko zazpi botorekin onartu ziren kopuru horiek –Debarren Ahotsako bost eta EAJko bi (hirugarren zinegotzi jeltzalea ez zen izan plenoan)–. EH Bilduk kontrako bost bozka eman zituen.

Iaz onartutako aurrekontu bateratua 7.034.610 eurokoa izan zen; beraz, aurtengo behin-behineko aurrekontuak %5,30eko igoera izan du. Itziarko Auzo Udalerak 802.017 euro bideratuko dira, Deba Musikalek 569.870 euroko kopurua izango du, eta Arte Eskolari 191.571 euro dagozkie.

Barne Erregimeneko departamentuak 2.507.788 euroko aurrekontua izango du –iaz baino %2,19 gehiago–. Ogasun, Ondare eta Kontuak deritzon sailak 342.508 euro izango ditu –iaz baino %5,36 gutxiago–.

Hezkuntza, Kultura eta Euskara batzordearen aurrekontua 809.584 eurokoa izango da. Iazko datuekin alderatuta, jaitsiera %4,32koa izan da esparru honetan. Jaierako batzorderako 122.000 euro bideratuko dira, iaz baino %8,19 gehiago.

Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasunaren Batzordeak 425.406

AURREKONTUAK 2016		
2016	2015	%
Kontsolidatua: 7.428.780	Kontsolidatua: 7.034.610	+ %5,30
Debako Udala: 7.086.276	Debako Udala: 6.721.751	+ % 5,14
Auzo Udala: 802.017	Auzo Udala: 744.447	+ % 7,18
Deba Musikal: 569.870	Deba Musikal: 559.870	+ % 1,75
Arte Eskola: 191.571	Arte Eskola: 200.221	- % 4,51

euro jasoko ditu, iaz baino %4,37 gehiago. Hirigintzara 33.048 euro bideratuko dira (iaz baino %21,07 gutxiago). Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren Batzordeak 1.527.165 euro izango ditu (iaz baino %4,66 gehiago).

Gazteria eta Kiroletarako atalean 379.844 euro jasoko dituzte (%38,05 gehiago), eta Turismoa eta Geoparkeko Batzordera 77.911 euro bideratuko dira (iaz baino %10,61 gehiago).

Iaz sortutako Herritarren



Partaidetza eta Ekonomiaren Sustapenerako Batzordeak 59.000 euroko aurrekontua izango du.

Inbertsioak

Aurrera begirako inbertsioetarako zenbatekoa ez dute zehaztu udal agintariek. Nolanahi ere, eta diru kopuruak aipatu ez diren arren, 2016rako hainbat inbertsio aurreikusten dituztela jakinarazi dute.

Asmo edo proiektu horietako bat da, adibidez, herriko toki ezberdinetan (Osion, Mogel kalean edota Kalbeton zumardian) umeentzako dauden jolastokiak hobetzea eta berriak egitea.

Aparkalekuen arazoei aurre egiteko hainbat ikerketa burutu nahi dituztela aipatu dute Debarren Ahotsako kideek. Besteak beste, Luzaro eskolako jolastokia estaltzea aurreikusten dutela azaldu dute.

Kirol arlorako ere aurreikusten dituzte zenbait inbertsio: “Ur kirolen proiektua dugu abian. Hau burutzeko

ezinbestekoa da gune egokiak sortzea eta, horretarako, portua eta estuarioa egokitzeko hainbat inbertsio aurreikusten ditugu”.

Bestetik, ETS Euskotrenekin elkarlanean dabilzala gogorarazi dute udal agintariek, “trenbide gunea hobetu eta zentral elektrikoaren lagatzea lortzeko, bertan kultur etxebat sortzeko asmotan”.

Santa Katalina inguruetarako sarbidea hobetu eta gunearen balioa “handitu” nahi dute datozen hilabeteotan. “Gainera, badakigu herria momentu oro egon behar dela hobetze prozesu batean eta, ondorioz, horretarako hainbat partida aurreikusi ditugu; esaterako, kaleen argiztapena hobetuko dugu, bere antolamendua, eta abar”, gaineratu dute Debarren Ahotsako ordezkariak.



Indar guztiek batzen dutela, eta 2+2 ez dela beti 4, baizik eta 5 izan daitekeenaren sinismenari jarraituz, lehenengo unetik argi izan dugu gainontzeko indar politikoekin elkarren ondoan lan egiten saiatuko ginela.

Ildo honen inguruan, EAJ-PNVrekin batera landutako aurrekontuen zirriborroa eta gure Ekintza Plana Ehbilduri entregatu genizkion, horrek, bere aldetik, bere ekarpenak egin ahal izateko. Ekarpene horiek aztertu eta gure aldetik erantzun bat izan zuten.

Honez gain, eta partaidetza sustatuz, aurrekontuen

zirriborroa sail bakoitzeko batzorde gehienetan landu da.

Badakigu, Debarren Ahotsak-eko partaideentzat guztiz berria den tokiko udal administrazioaren mundu honetan moldatzeko orduan, hobetzeko tartea dugula.

Sinetsita gaude, aurrekontuak egiteko, herritarren partaidetza gehiago behar dela eta bagaude jadanik horretan lanean.

Gainera, hurrengo 2017ko aurrekontuekin hasi baino lehenago, kudeaketa tresna hau prestatuta izan behar-ko genuke.



EhBilduk aurrekontu proposamen honen aurka bozkatu du udalbatzarrean; beraz, gure iritzia beste aurrekontu batzuk behar genituela da.

Aurrekontua 360.000 euro inguru hazi da aurten (Foru Aldundiaren ekarpenari esker) baina igoera honek ez du isla nabarmenik izango aurrekontuan: inbertsioen arloan planteamendurik ez dago eta arduradun politikoen partida nabarmen igo da lehen egunetik, besteak beste.

Aurrekontua osatzeko prozesuan ere atzera egin dugula uste dugu. Orain arte batzordeetan aurkeztu eta eragile-ek ekarpenak egin edo iritzia emateko aukera izan dute. Aurten, berriz, proposamen itxiak aurkeztu dira kasurik onenean.

Legealdia hastearrekin batera udal gobernuak "Partehartzea eta Sustapen Ekonomikoa" izeneko batzorde berri bat jarri zuen martxan eta behin baino ez da bildu hamar hilabeteetan. Guk uste dugu parte-hartzea modu transbersalean,

arlotzietan, landu beharreko funtzionamendua izan behar dela. Orain artean, gobernu honen kudeaketa eredu ez da gardena eta parte-hartzailea izaten ari.

2016koa Itziarko Auzo Udalak aurrekontuan partida propioa izango duen lehen urtea izango da. Eta argi esan dezakegu debarron bizi kalitatea okertuko zela ziotenen mezuak ez duela funtsik.

Debarren Ahotsa - EAJ gobernuak egindako hasierako proposamenari hainbat ekarpen egin genizkion Ehbildutik. Uste dugu egindako proposamenekin hasierako proposamena hobetzea lortu dugula: garapenerako laguntzarako %0,7a bermatzea, zumardiko jolas parkea handitzeko proposamena, Miramar hotelaren gunean skateparka atontzeko proiektua, ... Gobernuak begi onez ikusten dituela aitortu arren, diru partidetan ez dute isladarik izan askok eta proiektuekiko konpromisoa aurrekontuan islatu behar da.



2016ko aurrekontuak onartu berriak izan dira. Urrian hasi, Debarren Ahotsarekin bateratu, Ehbilduri aurkeztu eta batzordeak egin orduko, martxoan jarri gara. Aurtengoak aurrekontu onak direla deritzogu. Arlo gehienetan diru kopuruak handitu egin dira. Gizarte Zerbitzuetan iaz baino %4,37 gehiago, Ingurumen eta Zerbitzuetan %4,66 gehiago, Gazteria eta Kirolean %38 gehiago, polikiroldegiko zerbitzuak hobetuz, Turismo eta Geoparkean %10 gehiago, Ogasunean mailegu bat ordaindu ondoren gastuak %5ean murriztuko dira, eta urteetan San Roke jaietarako aurrekontua izoztuta izanik, herritar guztientzat jai on batzuk prestatzeko helburuarekin San Roketarako partida igotzen da. Partaidetza eta Ekonomia

Sustatzeko batzorde berri bat sortu eta 59.000 euroko aurrekontua izango dugu, herritarren ongizatea hobetzeko ilusioarekin. Eta 2017rako aurrekontu parte-hartzaileen dinamikak egingo ditugu.

Hondakinen arloan Ehbilduk egindako kudeaketaren ondorioz, Gipuzkoako udalerririk guztiek GHK-k utzitako zuloaren zor horri aurre egin beharko diogu. Debaren kasuan 60.000 euro zuzenean jarri eta hurrengo urtera begira zaborren tasak igotzera derrigortuko gaitu.

Alde positiboak negatiboen gainetik jarritz, herrirako diru baliabide egokiak bermatzen dira. Horregatik, aldeko botoa eman genien aurrekontu hauei.

Martxoaren 8aren harira ekimen ezberdinak egin dira

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira ekimen ezberdinak burutu dira aurten ere. Martxoaren 4an, adibidez, azken urteotan Deban Beldur Barik lehiaketara aurkeztu diren lanen proiektzioa egin zen Agirre jauregian. Ondoren, Gaztelekuak prestatutako luncha eskaini zen.

Martxoaren 8an, Kalean Kantuz eta txistulariak aritu ziren kaleak alaitzen eta "Emakumeen Indarra" lelopean elkarretaratzea egin zen gero Foruen plazan. Egun bat beranduago, Emakumezkoen Defentsarako Arte Martzialen inguruko erakustaldia antolatu zen eta, besteak beste, helduentzako ipuin erotikoak eta haurrentzako berdintasunaren inguruko ipuin kontaketa saioa ere egin dira aurten. Bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko adierazpen instituzional bat onartu du Udalak (www.deba.eus-en irakur daiteke).



Ander Salegi

"Denon artean egiten dugu Deba"

"Denon artean egiten dugu Deba. Toki eta ahots bilguneak autoktonoen eta immigranteen artean" izenburupean ikusi du argia Jose Luis Albizuk, Nagore eta Lukax Dorronsorok idatzitako aldizkariak. Martxoaren 10ean aurkeztu zuten lana eta dagoeneko salgai dago 4 euroan, Arkatzan eta Nelson Juderekin (Gurutze kalean).



Amaiak Bat Deba Txirrindulari Taldeak hiru proba antolatu ditu apirilerako



Amaiak Bat Txirrindulari Taldea buru-belarri dabil apirilean antolatuko diren hiru hitzorduak prestatzen. Apirilaren 2an (larunbata) XLIII. Amaiak-Bat Saria (junior maila) egingo da. 10:15ean abiatuko dira txirrindulariak eta 86 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Bigarren hitzordua apirilaren 10ean (igandea) izango da. XXIV. Debako Bira-Zikloturista maila jokatu da egun horretan eta 128 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek. Pare bat aste beranduago, apirilaren 23an, kadeteen txanda izango da norgehiagokan, XLIII. Deba Saria jokatu baita 10:45etik aurrera.

Espainiako zilarrezko domina Martin Hernandezi

Martxoaren 12-13ko asteburuan Oviedon jokatuako pista estaliko Espainiako atletismo txapelketan, kadete mailan, Martin Hernandez Beitia korrikalariak zilarrezko domina lortu zuen 600 metroko lasterketan. Zorionak txapelendunordeari!

Gipuzkoako Hiru-Txirlo txapelketa, laster abian

Apirilaren 9an San Pedron (Elgoibarren) abiatuko da Gipuzkoako XLVII. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa. Ekainaren 4a arte luzatuko da aurtengo lehia eta guztira bederatzi jaurtialdi burutuko dira. Larunbatetan izango dira saio guztiak, 17:00etatik aurrera, eta sari ezberdinak daude jokoan.

San Pedroko saioaren ostean, apirilaren 16an ere Elgoibarren bilduko dira txapelketako parte-hartzaileak eta zaleak, San Migelen. Hurrengo jaurtialdiak apirilaren 23an (Garmendipeko bolatokian) eta apirilaren 30ean (Eibarko Asola Berrin) egingo dira. Lasturrek maiatzean hartuko du txapelketako saioetako bat.

Zurrunbiloko kideak, gogor Kantauri Ligan



Aurten ere, Debako Zurrunbilo surf taldeko partaideek gogor dihardute 2016ko Kantauri Ligan. Ligako joaneko buelta amaitu ostean, Zurrunbilo 3. postuan dago, baina lehen postuan berdindurik dauden bi taldeetatik bi puntura besterik ez dago! Ea bigarren buelta hau ondo joaten zaien eta rankinean gora egitea lortzen duten! Aipatzekoa da aurtengo Kantauri Ligan ikusten ari garen surf maila eta, oraindik aipagarriagoa dena, Zurrunbilo taldeko gazteenak surfean ematen ari diren maila. Gure herriko surf harrobia gero eta indartsuago dator! Aurrera Zurrunbilo!!

Itziarko Adierazpenarekin tokiko entitate txikien arteko elkarlana bultzatuko du Itziarko auzo-udalak

Otsailaren 27an egindako ekitaldi instituzionalarekin bat egin zuten Irurritako, Ereñotzuko eta Arabako Kontzeju Elkarteko agintariek



Irudiak: Ander Salegi

Duela urtebete, 2015eko otsailaren 27an, Itziar auzo-udal bihurtu zen Gipuzkoako Aldundiak horretarako Foru dekretua onartu eta gero. Urtebetez lan handia egin du auzoa gobernatzen ari den talde eragile zabalak eta gaur egun esan daiteke, garai bateko egoera liskartsua erabat desagertuta, erabateko normaltasunez eta eraginkortasunez funtzionatzen ari dela auzo-udala.

Hori ospatzeko, lehen urteurrenean, ekitaldi instituzionala antolatu zen Itziarren eta tokiko entitate txikiak herrialde desberdinetako ordezkari politikoei Itziarko Adierazpena sinatu zuten.

Eguraldi traketsari aurre eginez, plazan egitekoa zen ekitaldia Burugorri egitea erabaki zuten. Bertara auzotar ugari agertu zen, baita Debatik etorritako Cristobal del Corte eta Iñigo Cambrero (EAJtik) eta Jose Luis Albizu, Maider Zubikarai (azken orduko bat izan zuen, ezin izan zuen etorri) eta Itziar Irizar EH Bilduko ordezkari zinegotziak.

Ekitaldia Ihintza Irizarrek aurkeztu zuen eta herritar guztiak agurtu eta gero ongietorria eman zien gonbidatuak izan ziren Irurritako (Baztan) alkate-juratu Peio Obregonori eta Ereñotzuko (Gipuzkoa) auzo-alkate Imanol Lizeagari. Arabako Kontzeju Elkarteko lehendakariorde Rodrigo Lopez de Arroiabek elurra zela eta ezin izan zuten hurbildu.

Itziarko alkateorde Itziar Garatek Itziarko Adierazpena zertan datzan azaldu zuen. Esan zuenez, Adierazpenak auzo-udala baliozko egitura juridiko bezala aitortu eta dagokien erakundeei, entitate txiki hauek sustatzeko eskaria egiten du.

Itziarko Adierazpenak jasotzen du antolaketa eredu honek auzoen eguneroko beharrei erantzuteko gaitasuna duela, ordezkatzeko duten jendartearen nortasun berezia aitortzen duela eta, horrekin batera, auzotarrak ahalduntzen dituela.



Gonbidatutako ordezkari politikoei bat egin zuten Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako tokiko entitate txiki hauen errealitatea ezagutarazteko elkarlana egingo dutela esatean eta konpromisoa agertu zuten, bakoitzak bere berezitasun eta ezberdintasunetik abiatuta, euren behar eta esperientziak trukatzeko. Horrela, esperientziak partekatu, auzo-udalen izaeraren sustapena egin eta auzo-udalek etorkizunean garatuko dituzten eskumenen defentsa egitean elkarrekin arituko direla adierazi zuten. Itziarko auzo-alkate Zigor Aizpuruak hitza hartu eta gero, Itziarko Adierazpena sinatu zuten ordezkari guztiak eta ondoren ohorezko agurra dantzatu zitzaizen.

Ostean, plazara hurbildu ziren guztiak eta zumar zaharraren ondoan zumar gaztea landatu zuten Herria Sortzen urte luzez lan egindako Jesus Arregik eta gaztetxo batzuek. Ander Zulaikaren bertsoak entzun ondoren txalo zaparrada batekin eta salda beroarekin amaitu zen Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako entitate txiki hauen elkarlana bultzatuko duen Itziarko Adierazpenaren sinatze ekitaldia.

Itziarko Auzo Udala

Marino Plaza artista zendu da

Otsailaren 23an zendu zen Marino Plaza (1943-2016), aspaldian Lasturren bizi zen artista eibartarra. Fernando Beorlegi, Daniel Txopitea eta Iñaki Larrañaga Iglesiasekin batera, Gorutz taldea sortu zuen, 1974an. Helburu zuten pintura kostunbristatik alde egitea eta bide berriak irekitzea, baita elkarrekin erakusketak antolatzea ere.

Marino Plazak zeramika landu zuen batez ere, baina

pinturan edota Debako Arte Eskolan egindako irakasle lanarengatik ere nabarmendu da. Taldean nahiz bakarka, bere arte-lanak hamaika erakusketatan egon dira ikusgai.

“Marino Plazari agurra eta omenaldia” izenburupean, Debako Arte Eskolak bideo bat zintzilikatu du Facebook-eko bere horman, bidelagun izan duen artistaren ibilbidea irudien bitartez oroitzuz.

2016ko martxo
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrea Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Sexu heziketari buruzko saioak Mendata Institutuan

Urtarrilaren 25etik 29ra, Mendata institutuko 3.mailako ikasleek heziketa afektibo sexualari buruzko ikastaroa eduki zuten, Hondarribiko Hirusta taldeko bi sexologoren eskutik. Egunean bi orduko saioak izan zituzten; hamar ordu guztira.

Hirusta taldeko hezitzaileak aurreko urteetan ere egon ziren Mendata institutuan eta, esan zuteenez, oso komenigarria da adin honetako ikasleei sexu-heziketa ikastaro hau eskaintzea.

Ikastaroaren helburuak honako hauek izan ziren:

-Sexualitatea zer den azaltzea. Bi ikuspuntu desberdinetatik landu zen: ugalketaren ikuspuntutik eta plazerraren ikuspuntutik. Ikasleek joko eta ekintza desberdinen bidez landu zuten helburu hau.

-Bakoitzaren gorputza baloratzea eta horren inguruan nerabeek zeuzkaten kezka argitzea. Horretarako, hezitzaileek zenbait bideo eta argazki erakutsi zizkieten ikasleei.

-Ikasleen arteko harremana eta konfiantza hobetzea. Helburu hau praktikan jartzeko hainbat jarduera eta ariketa landu zituzten.

Ekintza batzuk lantzen ari ziren bitartean, ikasleen artean zenbait eztabaida sortu ziren, hainbat gai buruz hitz egiterakoan, denak ez baitziren iritzi berekoak.



Antisorgailuak

Azken egunean, ikastaroari bukaera emateko, ikasle bakoitzak saioei buruzko balorazioa egin zuen. Gainera, sexologoek telefono zenbakia eta helbide elektronikoa eman zizkieten ikasleei, dudaren bat sortuz gero haiekin harremanetan jarri ahal izateko.

Bestetik, urtarrilaren 28an, sexologoak gurasoekin bildu ziren ikastetxeko liburutegian, ikastaroko saioen garapenaz informatu eta bertan landutako edukiez hitz egiteko helburuz.

ELKARRIZKETA

Urko Azkoitia: **"Lakuako** **binakako pilota txapelketa** **irabazi nuen"**



Urko Azkoitiari egin diogu elkarrizketa oraingo honetan. Mendata Institutuko bigarren mailako ikaslea da Urko eta, besteak beste, pilotan aritzen da. Kirol horri buruzko galderak egin nahi izan dizkiogu:

Zergatik aukeratu zenuen pilota?

Kirol guztien artean gehien gustatu zitzaidana izan zelako.

Zenbat urterekin hasi zinen pilotan jokatzen?

5-6 urterekin hasi nintzen pilotan.

Txapelketarik jokatu al duzu? Aurrez aurrekoak ala binakakoak?

Bai, biak jokatu izan ditut, bai banakakoak eta baita binakakoak ere.

Entrenamenduak noiz egiten dituzu?

Asteazkenetan.

Zein txapelketatan parte hartu duzu?

Gipuzkoakoan eta herri bakoitzekoan.

Txapelketarik irabazi al duzu?

Bai, Lakuako binakako txapelketa irabazi nuen.

Txapelketa bat irabazten baduzu, zer sari ematen dizute?

Kopa eta txapel bat.

Binakako txapelketetan norekin jokatzen duzu?

Txapelketa bakoitzean pilotari ezberdin batekin jokatzen dut. Lakuako binakako txapelketan Azpeitiko mutil batekin jokatu nuen.

Beste kirolen bat praktikatzen al duzu?

Bai, futbolean ere aritzen naiz.

SEXU HEZIKETA

Hilabete honetan, hirugarren mailakoei joan gatzazkie hainbat galdera egitera. Gai berezi bat aukeratzea erabaki dugu, sexu heziketa, ikasleei gai interesgarria iruditzen zaielako. Hona hemen galdera-erantzunak:

- 1.- Beharrezkoa iruditzen zaizu zuen adinean ikastaro hau egitea? Zergatik?
- 2.- Sexualitateari buruz zeneukan kontzeptua aldatu zaizu? Zergatik?
- 3.- Gustura sentitu al zinen? Zergatik?
- 4.- Ikastaroan egindako jardueretatik zein da gehien gustatu zaizuna?
- 5.- Nolakoa izan da saioetako giroa?
- 6.- Ikastaroa jaso eta gero, komenigarria iruditzen zaizu etorkizunean antzeko saioak jasotzea?



Mikel Albizu

- 1.- Ez.
- 2.- Bai, haien azalpenak sakonagoak zirelako.
- 3.- Bai, giro ona egon delako.
- 4.- "Maite zaitut" jolasa, jokorik errazena iruditu zaidalako.
- 5.- Ona, giro ona egon delako.
- 6.- Ez.



Ander Rodriguez

- 1.- Ez, oraindik umeak garelako.
- 2.- Bai, lehen ez nekielako zer den sexualitatea, eta orain bai.
- 3.- Bai, dibertigarria izan delako.
- 4.- Pilota eta estutxearena, oso ondo egon zelako.
- 5.- Ona, denen artean giro ona egon delako.
- 6.- Ez.



Ane Gomez

- 1.- Bai, norbaitek ez badaki informatu ahal izateko.
- 2.- Pixka bat, sexualitatea sexua bakarrik zela pentsatzen nuelako.
- 3.- Bai, hezitzaileak oso jatorrak zirelako.
- 4.- "Maite zaitut" jolasa.
- 5.- Oso ona.
- 6.- Bai.



Mikel Zabala

- 1.- Bai, interesgarria delako.
- 2.- Ez, imajinatzen nuena delako.
- 3.- Bai, lagun artean giro ona egon delako.
- 4.- Zotzaren jokoa.
- 5.- Iskanbilatsua izan da.
- 6.- Bai.



Ane Ladera

- 1.- Bai, informazio gehiago izateko.
- 2.- Bai, sexualitateari buruzko kontzeptua zabaldu eta argitu digutelako.
- 3.- Bai, jarduera ezberdin dibertigarriak egin genituelako.
- 4.- Paperaren jarduera.
- 5.- Batzuetan zenbait eztabaida izan genituen, baina orokorrean ondo moldatu ginen.
- 6.- Bai, baliagarria izan daitekeelako.



Roke Etxeberria

- 1.- Bai, jakintza edukitzeko.
- 2.- Ez, argi neukalako.
- 3.- Bai, interesgarria izan delako.
- 4.- Zotzaren jokoa.
- 5.- Giro ona izan dugu.
- 6.- Bai, noski.



Joseba Sanchez

- 1.- Ez, dena deskubritzen dugulako.
- 2.- Ez, dena nekielako.
- 3.- Bai, lagunekin ondo pasa nuelako.
- 4.- Pepinoaren jolasa gustatu zitzaidan gehien.
- 5.- Oso ona.
- 6.- Ez.



Oihan Bores

- 1.- Bai, aurrerago akatsik ez egiteko.
- 2.- Ez, dena argi nuelako.
- 3.- Bai, gai honekin ez nintzen gaizki sentitu.
- 4.- Pepinoaren jolasa.
- 5.- Oso ona.
- 6.- Ez.

DENBORA-PASAK

LOTU ZENBAKIAK



ASMAKIZUNA

*Beti dago zutik eta ez da ibiltzen.

Hiru begi ditu autoak gidatzen.

Gorri, berde, hori, zuk asmatu hori.

ERANTZUNAK:

Asmakizuna: Semfora

TXISTEAK

*Nekazari batek ahateari zera esaten dio:

-Bihar Parisera joango gara.

Eta ahateak erantzuten dio:

-Kua!

Eta nekazariak:

-Bihar.

Ondoren, txerriarengana doa, eta hari ere esaten dio:

-Bihar Parisera joango gara.

Txerriak egiten du:

-Oin!

Eta nekazariak:

-Ez, oin ez, bihar joango gara.

*Ume bat arduratuta heltzen da etxera eta amari zera esaten dio:

-Ama! Ama! Eskolan oso despistatua naizela esaten dute.

-Ez egin kasurik eta egon zaitetz lasai! Baina, barkatu, ni ez naiz zure ama, zure auzokoa naiz.

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2015-2016

Ane Amutxastegi
Elene Arratibel
Ane Ladera
Lara Egaña
Haritz Alberdi
Julen Ayastuy

Jon Muñoz
Naia Zabala
Ane Larrañaga
Iraide Udabe
Idrissa Sene
Jon Osa

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

MARTXOAK 24-28

-**Aste Santua.** Egitarau berezia azpiko koadroan.

APIRILAK 2, LARUNBATA

-10:15. **XLIII. Amaiak-Bat Saria (junior maila)**, txirrindularitza lasterketa.

APIRILAK 9, LARUNBATA

-19:00. **Zubeltzu bertso-paper sariketako** sarien banaketa ekitaldia, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

APIRILAK 10, IGANDEA

-**XXIV. Debako Bira-Zikloturista maila** (txirrindularitza proba).

APIRILAK 16, LARUNBATA

-**Kolore Anitz Eguna.** Eguerdian haurrentzako ekintzak plaza berrian, 18:00etan gaztetxoentzat ginkana plaza berrian, eta gauean kontzertua Gaztetxean. Informazio gehiagorako, ikus aldizkari honen kontrazala.

APIRILAK 17, IGANDEA

-08:30. **Mendi irteera: Kanbo.** Burdin Kurutz M.T.-k eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. I.

APIRILAK 23, LARUNBATA

-10:45. **XLIII. Deba Saria txirrindularitza** lasterketa.
-13:00. **Txistularien kontzertua**, udaletxeko arkupeetan.

APIRILAK 24, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak**, Agirre jauregiko ispiluen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/ 18:00etan: 7-12 urte bitartekoentzat.

Aste Santua

***Ostegun Santua** (mar. 24) -Itziar: Gurutze bidea elizan (11:00). Jaunaren Nekaldiko Afariko ospakizuna (17:00).
-Deba: Jaunaren Azken Afariko ospakizuna (19:00), Ordu Santua (20:30).

***Larunbat Santua** (mar. 26) Piztuerako gau-beila (Itziarren, 19:00etan; Deban, 21:00etan).

***Ostiral Santua** (mar. 25) -Deba: Gurutze bidea kaleetan zehar (9:00). Jaunaren Nekaldiko ospakizuna (19:00).

***Pazko Igandea** (mar. 27) Eukaristia eta bataioak (Deban, 11:00etan; Itziarren, 12:30etan).

Hitzaldiak

-“Gure etxe txikia-gure etxe handia/Denon etxea” goiburupean, apirilean bi hitzaldi egingo dira Agirre jauregiko ispiluen gelan, Deba-Itziar Solidarioa eta Internazionalistaren ekimenez.

Hilaren 7an, osteguna, 18:30ean Iñigo Mijangosek “Euskal sorosleen esperientzia Ego Itsasoan” hitzaldia eskainiko du.

Hilaren 14an, berriz, 18:30ean Alma Saavedra (medikua Siriar errefuxiatuen

kanpaleketan-Mugarik Gabeko Medikua) arituko da hitzlaritza, “Siria, un éxodo sin precedentes” izenburupean.



Lehiaketak

-“**Herriak Garbi nahi ditugu, ekin!**” bideo-lehiaketa, Debanaturak Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatuta. Lanak aurkezteko azken eguna: apirilak 7. Informazio gehiagorako: <http://herriakgarbi-rikzbb.blogspot.com.es>.

-**VIII. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa.** Bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu besteek. Informazioa eta oinarriak: www.elkar.eus.

Ikastaroak

-**Dantza Garaikide Ikastaroa** burutuko da martxoaren 29ko astean. Kulunka taldeak antolatu du ekimena eta Claudio Rojasek gidatuko du ikastaroa. Saioak bi egunetan izango dira, goizez. Izen-ematea: 25 euro.

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du apirilean. Hainbat ikastaro eskainiko dira: Ofimatika Tresnak-LibreOffice... Informazio gehiagorako: www.kz-gunea.net ataria edo 943 02 36 29 telefono zenbakia.

Ordutegi berezia liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du martxoaren 29an, 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean.

Liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara egongo da zabalik eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **apirilak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.**

Burgoa Zuazo: **martxoak 28, 29, 30, 31. apirilak 15, 16, 17.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: apirilak 2 eta 9

BURGOA ZUAZO: martxoak 26
apirilak 16 eta 23

9:30 - 13:30



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Bordatxo

JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Ariarik: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Edurne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso

Autozerbitzua Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi



Pintxoak

Ogitarakoak

Plater Konbinatual

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 017
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Seven Clovers

Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Apirilak 16, larunbata

12:00 Haurrentzako (HH - LH) ekintzak plaza berrian.

18:00 Gaztetxoentzat (DBH) ginkana plaza berrian.

22:30 Kontzertua Gaztetxean.

SKALEAK



Erromeria GOZO - GOZO taldearekin gauerdian.

Giro paregabea!
Jolasak
Musika



Zuh-tza

